

# LASARTE-ORIA lantzen

Udal aldizkaria **Revista municipal**

Otsaila **Febrero 2016** - Zk. N° 11



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO







LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO

**E**tapa berri honetan, Lasarte-Oriako alkate gisa, konpromiso bat hartu nuen: Lasarte-Oriako Udala irekiagoa eta gardenagoa bihurtzea. Informazioa funtsezkoa da horretarako, eta horregatik egiten dugu apustu udalbatza honek gastatzen duen euro bakoitza nora doan publiko egitearen alde. Hortik aldizkari municipal bat egitearen garrantzia.

Aldizkari honen bidez, Lasarte-Oriako postontzi guztietara iritsiko gara, azaltzeko udala zer egiten ari den, zein proiektu eta ekimen dituen abian, zein diren interbentzio nagusiak eta zer erabaki hartu dituen udalbatzarrak.

**Lasarte-Oriak erronka garrantzitsuak ditu aurrez aurre. Izaera sozial, ekonomiko, kultura eta urbanoko erronkak, herri gisa elkarrekin aurre egin beharko diegunak etorkizun hobe baterantz aurrera egingo badugu.**

Nozitzen ari garen krisi luzetik ateratzeko lan egitearen erronka. Langabeziak zigortutako familiei eta bizitzako eta etorkizuneko kondizio duin batzuk bermatuko dizkieten baliabideak falta dituztenei babesa emanez.

Gure industriaren eta zerbitzuen egitura biziberritzearen erronka, enplegua sortzea ahalbidetuko duena, % 13,67ko langabezia-tasa duen herri batean; izan ere, 1.200 lasarteoriatar dira bizitza duina bermatuko dien lantoki baten bila dabiltzanak.

Kulturaren eta kirolaren arloko jarduera sustatzen jarraitzearen erronka, herritar guztiei parte hartzeko aukera emanez. Gure kaleak eta plazak hobetzeari ekiteko erronka, iristen errazagoak, bizitzeko egokiagoak eta, batez ere, gizatiarragoak izan daitezen.

Horretarako lanean ari gara presiditzen dudana udalbatza guztia.

**E**n esta nueva etapa como Alcalde de Lasarte-Oria adquirí un compromiso: hacer más abierto y transparente el Ayuntamiento de Lasarte-Oria. La información es vital para ello por lo que apostamos por hacer público a dónde van cada uno de los euros que gasta esta corporación. De ahí la importancia de hacer una revista municipal.

A través de esta revista llegaremos a todos los buzones lasarteoriatarra para explicar qué está haciendo el ayuntamiento, los proyectos e iniciativas en marcha, las principales actuaciones, los acuerdos adoptados por el pleno.

**Lasarte-Oria se enfrenta a importantes retos. Retos de índole social, económico, cultural, y urbano que como pueblo debemos afrontar juntos para avanzar hacia un futuro mejor.**

El reto de trabajar para salir de la larga crisis que sufrimos. Apoyando a las familias castigadas por el desempleo, por la falta de recursos que garanticen unas condiciones dignas de vida y de futuro.

El reto de regenerar nuestro tejido industrial y de servicios que permita crear empleo, en un pueblo con una tasa de paro del 13,67%; 1.200 lasarteoriatarra buscan un trabajo que garantice una vida digna.

El reto de seguir potenciando la actividad cultural y deportiva, dando participación a toda la ciudadanía. El reto de afrontar la mejora de nuestras calles, nuestras plazas, para hacerlas más accesibles, más habitables, y sobre todo, más humanas.

Para ello trabajamos toda la corporación que presido.

**Jesus Zaballos de Llanos**

LASARTE-ORIAKO ALKATEA

## AURKIBIDEA-ÍNDICE

- |   |  |
|---|--|
| 2. Alkatearen agurra-Saludo del Alcalde                       | 11. Zerbitzu Sozialak-Servicios Sociales         |
| 3. Gardentasuna eta Antolamendua-Transparencia y Organización | 12. Festak-Festejos                              |
| 4. Zerbitzu Publikoak-Servicios Públicos                      | 13. Gazteria-Juventud                            |
| 6. Obrak eta Hirigintza-Obras y Urbanismo                     | 14. Cultura eta Hezkuntza-Cultura y Educación    |
| 8. Kirolak-Deportes   | 15. Euskara-Euskera                              |
| 10. Enplegua eta Merkataritza-Emplo y Comercio                | 16. Udalbatzarraren erabakiak-Acuerdos Plenarios |

**Argitaratzailea:** Lasarte-Oriako Udala. **Edita:** Ayuntamiento de Lasarte-Oria. **Argazkiak:** Lasarte-Oriako Udala.

**Fotografias:** Ayuntamiento de Lasarte-Oria. **Ale kopurua / Tirada:** 8.000. **L.G. / D.L.:** SS 274-2008

# GARDENTASUNA ETA ANTOLAMENDUA

## TRANSPARENCIA Y ORGANIZACIÓN

### Asignazioak Asignaciones

Lehenbiziko udalbatzarrak  
asignazio hauek onetsi zituen:

El primer pleno aprobó las  
siguientes asignaciones:

#### Liberatuen taula Cuadro liberados

IZEN-ABIZENAK NOMBRE-APELLIDOS	ALDERDIA PARTIDO	KARGUA CARGO	% ARD. % DEDIC.	SOLD. GORD. URTE SAL. BRUTO AÑO	DIETAK DIETAS	GUZTIRA TOTAL
Jesús M.ª Zaballos de Llanos	PSE-EE	Alkatea / Alcalde	% 100	40.160,54 €	Ez / No	40.160,54 €
Lourdes Acevedo Beldarrain	PSE-EE	1er Tte. Alcalde	% 100	33.691,00 €	Ez / No	33.691,00 €
Agustín Valdivia Calvo	PSE-EE	2º Tte. Alcalde	% 100	33.691,00 €	Ez / No	33.691,00 €
Maite Iglesias Sánchez	PSE-EE	3º Tte. Alcalde			13.224,24 €	13.224,24 €
Jesús Alonso Ocariz	PSE-EE	4º Tte. Alcalde			13.224,24 €	13.224,24 €
Beatriz Juez Martín	PSE-EE	Concejala	% 100	33.691,00 €	Ez / No	33.691,00 €
José M.ª Urdampilleta Zubitur	PSE-EE	5º Tte. Alcalde			13.224,24 €	13.224,24 €
Pablo Barrio Ramírez	EH BILDU	Portavoz	50%	20.888,98 €	Ez / No	20.888,98 €
Leire Elizegi Beloki	EH BILDU	Portavoz suplente			6.619,68 €	6.619,68 €
Gorka Lizarraga Erro	EH BILDU	Concejala			6.619,68 €	6.619,68 €
Kristina Bernal Echeverria	EH BILDU	Concejala			6.619,68 €	6.619,68 €
Arkaitz Naya Carrasco	ADLOP	Portavoz			6.619,68 €	6.619,68 €
David Ares Rodríguez	ADLOP	Portavoz suplente	50%	20.888,98 €	Ez / No	20.888,98 €
Alicia García Patiño	ADLOP	Concejala			6.619,68 €	6.619,68 €
Estitxu Alkorta Barragán	EAJ-PNV	Portavoz	50%	20.888,98 €	Ez / No	20.888,98 €
Jon Antxordoki Recondo	EAJ-PNV	Portavoz suplente			10.582,56 €	10.582,56 €
Alejandro Sáenz Muriel	PP	Portavoz			6.619,68 €	6.619,68 €

#### Talde bakoitzaren sarreraren taula Cuadro ingresos por grupo

TALDE POLITIKOEI EMANDAKOAK ASIGNACIONES GRUPOS	HILEAN MES	TALDE POLITIKOEI EMANDAKOAK URTEAN ASIGNACIONES POR GRUPO AL AÑO	PSE-EE	20.322,60 €
Kopuru finkoa / Asignación fija	536,94 €	EH-BILDU	14.374,32 €	
Kopurua zinetz bakoitzeko / Por concejal de cada grupo	165,23 €	ADLOP	12.391,56 €	
		EAJ-PNV	10.408,80 €	
		PP	8.426,04 €	

Oharra: Udaleko talde guztiek daukate bulegoa, bilera-gela, bulego-materiala, ordenagailua eta telefono mobila.

Nota: Todos los grupos municipales disponen de un despacho, sala de reuniones, material de oficina, ordenador y teléfono móvil.

### Kontratazioaren kontrol handiagoa Mayor control de la contratación

Lehenbiziko aldiz, oposizioko kide batek kontratazio-mahaian parte hartuko du, horrela gardentasuna indartuz.

Por primera vez un miembro de la oposición participará en las mesas de contratación, reforzando la transparencia.

### Gardentasuna Transparencia

Alkatezak bere borondatez eskatu zion Nazioarteko Gardentasuna Espainia erakundeari gardentasuneko auditoria bat egiteko. Suspentsoa eman ziguten: 81 parametrotatik 13 bakarrik bete genituen. Plan bat jarri dugu abian, informazio guztia garden eta eskuragarri bihurtzeko.

Alcaldía solicitó voluntariamente a Transparencia Internacional España una auditoría de transparencia. Suspendingos: sólo cumplimos 13 de 81 parámetros. Hemos puesto en marcha un plan para hacer transparente y accesible toda la información.

### Alkatetza irekia Alcaldía abierta

Alkatetzak ateak irekitzen ditu, astean bi egunetan arratsalde harrera egiteko nahi duten herritar eta elkar-teei.

Alcaldía abre sus puertas, recibiendo dos días a la semana por la tarde a los ciudadanos, ciudadanas y asociaciones que lo deseen.

### Antolamendua Organización

Lehenbiziko Udal-Araudi Organikoa onetsi dugu, Udalbatzarraren funtzionamendua eta antolamendua eta Udalbatzako zinetzien eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen, adostasun handi batekin.

Hemos aprobado el primer Reglamento Orgánico Municipal que regula el funcionamiento y organización del Pleno y los derechos y deberes de los concejales de la Corporación con un amplio consenso.

## ZERBITZU PUBLIKOAK SERVICIOS PÚBLICOS

### Asfaltatzea Asfaltado

ORSA enpresari adjudikatu diogu, 355.144 euroko prezioan, asfaltatzeko kanpaina, kale hauek hartuko dituen:

- Kale Nagusia (Torre Etxeko eta Oztarango biribilguneak hartzen dituen tartea).
- Pintore, Juan de Garay, Pablo Mutiozabal, Geltoki

- Kalea eta Iñigo de Loiola.
- Sasoeta Ibilbidea.
- Asteasuaingo tartea bat.
- Arranbideko zelaia.


Udaleko brigadaren bidez ere egiten ari gara interbentzio txikiak, oraingo honetan jar dungo ez den zonetan.

Hemos adjudicado a la empresa ORSA por 355.144 euros la campaña de asfaltado que comprende:

- Kale Nagusia (tramo comprendiendo las rotondas de Casa-Torre y Oztaran).
- Pintore, Juan de Garay, Pablo Mutiozabal, Geltoki e Iñigo de Loiola.

- Sasoeta Ibilbidea.
- Un tramo de Asteasuain.
- Campa de Arranbide.

Mediante la brigada municipal se está procediendo también a realizar pequeñas intervenciones en aquellas zonas donde no se va a actuar en esta ocasión.



### Aparkalekuak Aparcamiento

Udalak 149 aparkamendu-plaza atera ditu alokairuan, Okendo Plazaren eta Tajamar Biribilgunearen azpian, Betelu gestoriaren bitartez, honako baldintza hauekin:

- 17 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko 135 plaza, hilean 60 euroan.
- 20 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko 10 plaza, hilean 65 euroan.
- 26 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko 3 plaza, hilean 70 euroan.
- 26 m<sup>2</sup> baino gehiagoko plaza bat, hilean 90 euroan.

El Ayuntamiento ha sacado en alquiler 149 plazas de aparcamiento bajo la Plaza Okendo y en la Rotonda de Tajamar a través de la Gestoría Betelu en las siguientes condiciones:

- 135 plazas de menos de 17 m<sup>2</sup> por 60€/mes.
- 10 plazas de menos de 20 m<sup>2</sup> a 65€/mes.
- 3 plazas de menos de 26 m<sup>2</sup> a 70€/mes.
- Una plaza de más de 26 m<sup>2</sup> a 90€/mes.

### Manttangorri Manttangorri

Urtarrilaren 12az geroztik, herriko Manttangorri autobusa MUGI txaratelaren sisteman integratu da, hiri arteko autobusei edo Donostialdeko metroari aplikakizun zaizkien onura berekin.

Desde el 12 de enero el popular Manttangorri se ha incorporado al sistema de la tarjeta MUGI, con los mismos beneficios aplicables a los autobuses interurbanos o el metro Donostialdea.



## Jubilatuen elkarteak Hogar del jubilado

Otegi-Gaztañagak eraikiko ditu Jubilatuen Elkarteko kafe-  
tegiko komun berri irisgarriak,  
47.887 euroan.

Otegi-Gaztañaga ejecutará  
los nuevos baños accesibles  
de la cafetería del Hogar del  
Jubilado por 47.887€.



## Udaleko brigada Brigada municipal

JRA Maquinaria enpresak kargagailu bat hornituko  
du 21.695 euroan, segurtasun-sokak instalatuko dira  
Udaletxeko eta Haurreskolako fatxadak garbitzeko,  
7.598 euroan, Sector Vertical enpresaren bitartez.

JRA Maquinaria suministrará una cargadora por  
21.695€ y Sector Vertical instalará líneas de vida  
para la limpieza de fachadas en al Ayuntamiento y  
Haurreskola por 7.598€.

## Kale-altzariak Mobiliario urbano

59 banku 18.071 euroan erosiko zaizkio Montaje  
Garra enpresari eta 41 paperontzi 17.867 euroan  
Inoxkea Hiri Altzariak enpresari.

Se adquirirán 59 bancos a la empresa Montajes  
Garra por 18.071€ y 41 papeleras a Inoxkea Hiri  
Altzariak por 17.867€.

## Seinaletika Señalética

Lizitaziora atera da seinale horizontalak pintatzea  
(oinezko pasabideak...) eta trafikoko seinaleak eta  
Manttangorriren geralekuetakoak erostea, 74.162  
euroan.

Licitado el pintado de las señales horizontales  
(pasos de cebra...) la compra de señales de tráfico y  
de las paradas del Manttangorri por 74.162€.

## Altzariak mantentzea Mantenimiento mobiliario

Montajes Garrari kontratatu zaio paperontziak,  
bankuak eta eskudelak lixatzea eta pintatzea,  
60.252 euroan.

Se ha contratado el lijado y pintado de papeleras,  
bancos y pasamanos a Montajes Garra por 60.252€.

## Eguberrietako argiak Luces de navidad

Nabarmen gehitu dira, Maykolux enpresa 18.186  
euroan kontratatuta.

Se han ampliado de manera importante contratan-  
do a Maykolux por 18.186€.

## Ikastetxeak Centros escolares

**PABLO GARAIKOETXEA H.I.**  
Ikastetxeko atezainaren etxebizitza  
eraberritu egingo da, eta horretarako  
Reformas Javier Lasa Igoa kontratatu da  
26.569 euroan.

**SASOETA H.I.**  
Fatxadaren parte bat konpontzea Cons-  
trucciones Loidi enpresari adjudikatu  
zaio, 10.714 euroan.

**C.P. PABLO GARAIKOETXEA**  
Se reformará la vivienda del conserje del  
colegio para lo que se ha contratado a  
Reformas Javier Lasa Igoa por 26.569€.

**C.P. SASOETA**  
Adjudicado a Construcciones Loidi  
el arreglo de parte de la fachada por  
10.714€.



## Saneamendua Saneamiento

Excavaciones y Transportes  
Ateri enpresak egingo ditu  
ur zikinaren sarea konpontze-  
ko obrak Ola Kalearen eta  
Kale Nagusiaren arteko bide-  
gurutzean, 20.569 euroan.

Excavaciones y Transpor-  
tes Ateri hará las obras de  
arreglo de la red de fecales  
en el cruce Ola Kalea y Kale  
Nagusia por 20.569€.





## OBRAS Y URBANISMO



### Bidegorria Bidegorri

200 metro tarte berri bat gauzatu da, 76.454 euroan. Construcciones Otegi y Gaztañaga enpresak egindako obra honekin, Lasarte-Oriak 6,2 km bidegorriko sare municipala izango du.

Ejecutado un nuevo tramo de 200 metros por 76.454€. Con esta obra realizada por Construcciones Otegi y Gaztañaga, Lasarte-Oria cuenta con una red municipal de 6,2 km de bidegorri.

### Ibaiko faunaren behatokia Observatorio de fauna de río

Arrain-Faunaren Behatoki Naturala zaharbertitzeko lanak Excavaciones y Transportes Ateri enpresari adjudikatu zitzaizkion 11.422 euroan.

Los trabajos de restauración del Observatorio Natural de Fauna Piscícola fueron adjudicados a Excavaciones y Transportes Ateri por un valor de 11.422€.



### Ingurumena Medio ambiente

#### ERRAUSTEGIA

Udalak alegazioak aurkeztu dizkio Eusko Jaurlaritzaren Donostialderako Lurralde-Plan Sektorialari, erraustegia Zubietako Gainetan instalatzearen kontra.

#### INCINERADORA

El Ayuntamiento ha presentado alegaciones al Plan Territorial Sectorial de Donostialdea del Gobierno Vasco contra de la instalación de la incineradora en los Altos de Zubieta.

#### LORATEGIEN MANTENTZIOA

Lorategiak eta parkeak mantentzeko lizitazio berriaren bidez, zerbitzuak izan ziren murrizketekin bukatzeko asmoa dago. Urteko aurrekontua 593.304 € da, 385.624 m<sup>2</sup> berdegune mantentzeko.

#### MANTENIMIENTO DE JARDINES

La nueva licitación del mantenimiento de jardines y parques pretende acabar con los recortes que hubo en el servicio. El presupuesto anual es de 593.304€ para mantener los 385.624 m<sup>2</sup> de zonas verdes.

### Oinezkoen pasabidea Atsobakarren Paso de cebra en Atsobakar

Construcciones Loidi enpresari adjudikatu zaio, 56.774,22 euroan, Atsobakarren oinezkoen pasabide berri bat egiteko obra, auzorako sarbide berri bat irekitzen eta antolatzen duena. Horrela hobetu egingo da zona horretarako irisgarritasuna.

Adjudicada a Construcciones Loidi por 56.774,22€ la ejecución del nuevo paso de cebra en Atsobakar que abre y ordena un nuevo acceso al barrio, mejorando la accesibilidad a dicha zona.



## Zumaburu H.I. C.P. Zumaburu

### PROIEKTUA IDAZTEA

Udalak urgentziaz kontratatu zuen Markitec enpresa, Zumaburu eskolako teilatua eta fatxada zaharberitzeko obren proiektua idatz dezan, 20.570 euroan.

### ZAHARBERRITZEKO OBRAK

Teilatuko eta fatxadako filtrazioak kenduko dira. Leiho zaharrak aldatu egingo dira eta patioaren estalketa bukatuko da, haurrek erabiltzeko moduan egokituz. Aurrekontua 415.757 eurokoa da.

### REDACCIÓN DE PROYECTO

El ayuntamiento contrató por urgencia a la empresa Markitec para redactar el proyecto de ejecución de las obras de rehabilitación la cubierta y la fachada del C.P. Zumaburu por 20.570€.

### OBRAS DE REHABILITACIÓN

Se eliminarán las filtraciones en cubierta y fachada. Se sustituyen las ventanas antiguas y se terminará la cubrición del patio, adecuándose para el uso de los niños y niñas. El presupuesto es de 415.757€.



## Irisgarritasunaren plana Plan de accesibilidad

Alkateak 1.000.000 euroko diru-laguntza kudeatu du Eusko Jaurlaritzarekin, eta, horri esker, aurtun bi alde berrurbanizatzeari ekiteko modua izango dugu:

### BUENOS AIRES ALDAPA

596.000 euroan baloratutako obra batek irisgarritasuna hobetuko du, espaloi estuegiek ez baitute ume-kotxeekin eta aulki gurgildunekin pasatzen uzten ibilbidearen tarte handi batean.

### IRISGARRITASUNA GOIKALE 20-22an

Irisgarritasun-arazoak konpontzeko inbertsioa behar duen zona bat da. Aurreikusitako inbertsioa 400.000 euro ingurukoa da.

Alcaldía ha gestionado una subvención de 1.000.000 de euros con el Gobierno Vasco que permitirá abordar estas reurbanizaciones:

### CUESTA DE BUENOS AIRES

Una obra valorada en 596.000 euros mejorará la accesibilidad de unas aceras excesivamente estrechas que no permiten el paso de coches de niños o sillas de ruedas en buena parte de su trayecto.

### ACCESIBILIDAD EN GOIKALE 20-22

Es una zona que requiere una inversión para resolver los problemas de accesibilidad. La inversión prevista ronda los 400.000 euros.

## Plangintza urbanistikorako aholku-batzordea Consejo de planeamiento urbanístico

Eratu da herritarrek parte hartzeko aholku-batzorde hori, eta Eusko Jaurlaritzaren Donostialderako Lurralde-Plan Sektorialari erraustegia Zubietan instalatzearen kontra egindako alegazioen gaia landu du.

Constituido este consejo de participación ciudadana tratando las alegaciones al Plan Territorial Sectorial de Donostialdea contra la instalación de la incineradora en Zubieta.

## Sasoetako etxabeak eraistea Derribo de bajos de Sasoeta

Fibrozementuak agertzeak obra geldiarazi zuen, beharrezkoa baitzen modu egokiak elimintzea. Zonatik amiantoa kentzeko proiektua Eusko Jaurlaritzak onetsita, berriro ekin zaie eraisteko obrei.

La aparición de fibrocemento paralizó la obra ya que era necesario proceder a su correcta eliminación. Una vez que el Gobierno Vasco ha aprobado el proyecto de desamiantado, se han reiniciado las obras de derribo.



## KIROLAK DEPORTES



### Kiroldegi berria Nuevo polideportivo

Kiroldegia hobetzeari ekin beharra dago. Oraingoak dituen mugen jakitun, berri bat eraikitzearen hautua egin dugu, eta Denis Itxaso kiroletako foru-diputatuaren babes bilatu dugu proiektua garatzeko. Agintaldi honetako proiektu ambizioena da, behar duen inbertsioaren garrantziagatik.

Es necesario abordar la mejora del polideportivo. Conscientes de la limitación del actual polideportivo se ha optado por la construcción de uno nuevo, buscando el apoyo del Diputado Foral de Deportes, Denis Itxaso, para el desarrollo del proyecto. Es el proyecto más ambicioso de este mandato por la importancia de su inversión.

### Areto-futboleko pista Pista fútbol sala

Olanazko itxitura bat instalatu dugu, Michelingo areto-futboleko pistan euri-urik sar ez dadin. Lanak, Toldos Aita Mari enpresak eginak, 8.607 € kostatu ziren. Gainera, Gokyo Sareak enpresak frontoiko sarea aldatu zuen, 4.380 euroan.

Hemos instalado un cerramiento de lona para evitar la entrada de agua de lluvia en la pista de fútbol sala de Michelin. Los trabajos, realizados por Toldos Aita Mari, costaron 8.607€. Además Gokyo Sareak cambió la red del frontón por 4.380€.



### Legionellaren kontrako borroka Lucha contra la legionela

Michelingo kirolguneko ur beroaren instalazioa aldatu egin da, hobetzeko eta legionellaren kontrako legeetara egokitzeko xedearekin. Obra, 25.027 € kostatu dena, Tarte enpresak egin zuen.

Cambiada la instalación de agua caliente de la zona deportiva de Michelin al objeto de mejorarla y adaptarla a la legislación contra la legionela. La obra, de 25.027€, fue ejecutada por Tarte.



### Padeleko pistan belaze artifiziala aldatzea Cambio césped artificial pista de paddle

Osorik berritu da padeleko pistako zorua, oso hondatua baitzegoen, eta erabileraren higadura hobeto jasaten duen zuntz bat jarri da, 5.566 euroko inbertsioarekin.

Se ha renovado íntegramente el suelo de la pista de paddle, muy deteriorado, con una fibra más resistente al desgaste por el uso, con una inversión de 5.566€.





## Urteko kirolariak Deportistas del año

Udalak 6 kirolari lasarteoriatarren lana aitortu zuen, kirolaren eta ahaleginaren balioak nabarmendu ziren ekitaldi batean. Omendutako kirolariak hauek izan ziren: Eneritz Busto atleta, Iñigo Ibarburu eta Xabier Elizegi igerilariak, Eva Crespo body fitnesseko txapelduna, Axier Arteaga pilotaria eta Maialen Chourraut piraguista.

El Ayuntamiento reconoció la labor de 6 deportistas lasarteoriatarras en un acto en el que se destacaron los valores del deporte y el esfuerzo. Los deportistas homenajeados fueron: la atleta Eneritz Busto, los nadadores Iñigo Ibarburu y Xabier Elizegi, la campeona de Body Fitness Eva Crespo, el pelotari Axier Arteaga y la piragüista Maialen Chourraut.

## San Silvestre

Ekimen herritar baten sorrera ospatu dugu, Udalarengandik interes handiarekin babestu dena: San Silvestreko 1. lasterketa. Ekitaldiak Texas kirol-klubaren antolakuntza izan zuen, bai eta dozenaka boluntario eta elkarteren babesa ere, eta horri esker arrakastatsua gertatu zen: 700 parte-hartzaile baino gehiago.



Fotografía: Txema Vallés.


Celebramos el nacimiento de una iniciativa popular que ha sido apoyada con mucho interés por el Ayuntamiento: la 1ª Carrera de San Silvestre. El evento, que contó con la organización del C.D. Texas, tuvo el apoyo de decenas de voluntarios y asociaciones que hicieron posible el éxito de la misma: más de 700 participantes.



## Makina berriak Nueva maquinaria

Amer Sport Spain enpresari 15 makina berri erosi zaizkio, kiroldegiko gimnasiorako eta kardioko gelarako, guztira 57.840 euroan.

Se han adquirido a Amer Sport Spain para el Polideportivo 15 nuevas máquinas para el gimnasio y la sala de cardio por 57.840€.



## ENPLEGUA ETA MERKATARITZA EMPLEO Y COMERCIO



### Merkataritza Comercio

#### TRATU ON BAT

Gure merkataritzaren marka promozionatzen dugu, ebentuekin kolaboratuz:

- Lasarte-Oriako Krosa, Ostadar SKTrekin
- 1. San Silvestrea, CD Texas klubarekin
- 1. Lasarte-Oria KaleraFest jaialdia
- Egutegia, mapa...

#### HITZARMENA ATERPEAREKIN

Dendari eta ostalarien elkartearekin sinatutako hitzarmenak ekimen asko garatzen ditu, Lasarte-Oria merkataritzako eta aisiako gune dinamiko, erakargarri eta etorkizunduna izan dadin:

- Stockaren Azoka, establezimenduen atarrietan
- Biziberritzen programa, komertzio itxien erakusleihoak beste batzuk promozionatzeko erabiliz
- Bezeroaren Hamabostaldia, kontsumitzailerentzako eskaintza garrantzitsuekin
- Eguberrietako argiak, beste urteen aldean nabarmenki gehitu direlarik
- Pintxoaren Ibilbidea, Martín Berasategiren partaidetzarekin...



#### TRATU ON BAT

Promocionamos la marca de nuestro comercio colaborando con eventos:

- El Cross de Lasarte-Oria con el Ostadar SKT.
- La 1ª San Silvestre con el CD Texas.
- El 1º Lasarte-Oria KaleraFest.
- El calendario, mapa...

#### CONVENIO ATERPEA

El convenio firmado con la Asociación de comerciantes y hosteleros desarrolla muchas iniciativas para hacer de Lasarte-Oria un espacio comercial y de ocio dinámico, atractivo y con futuro:

- La Feria del Stock, a las puertas de los comercios.
- Programa Biziberritzen, escaparates de comercios cerrados para la promoción de otros comercios.
- La Quincena del Cliente, con importantes ofertas para los consumidores.
- Luces de Navidad, con un importante incremento respecto a otros años.
- La Ruta del Pintxo, con la participación de Martín Berasategi...

### Landa-garapena Desarrollo rural

Behemendiren eskutik, hiru ekimen jarri dira abian:

- Baserritarren Azoka, baserriko produktuak saltzeko gune bat.
- Buruntzaldeko ibilbideen plana, gure eskualdea ezagutzera animatzeko.
- Oinezko ibilbideak Sagar-doaren Lurraldean, izaera turistiko nabarmeneko, sagardoa balioan jartzen duena.

De la mano de Behemendi se han puesto en marcha tres iniciativas:

- Feria del Baserritarra, un espacio para la venta de productos agrícolas.
- Plano de Senderos de Buruntzaldea, para animar a conocer nuestra comarca.
- Rutas a Pie por la Tierra de la Sidra, de marcado carácter turístico y que pone en valor la sidra.



### Enplegua Empleo

#### ENPLEGU-MAHAIA

Hainbat agente politiko, sozial eta ekonomiko errepresentagarriekin sortu da mahaia, herrian enplegua garatzearen aldeko ekimenak eta programak proposatzeko eta lantzeko. Parte hartzeko organo bat da, lantokirik gabe dauden ehundaka pertsonen irtenbideak bilatzeko.

#### KONTRATAZIOAK

Eusko Jaurlaritzak 63.313 euroekin finantzatutako Eskualdeko Enplegu-Planari esker, 5 pertsona kontratatu dira: Tratu On Bat programarako marketing komertzialerako 2 kudeatzaile, Guztion Lasarte-Oria promozio komertzialerako proiektuaren kudeatzaile bat, igeltsero bat eta pintatzaile bat.

#### MESA DE EMPLEO

La mesa se ha creado con diferentes agentes políticos, sociales y económicos representativos, para trabajar y proponer iniciativas y programas en favor del desarrollo del empleo local. Es un órgano de participación para buscar salidas a los cientos de personas en situación de desempleo.

#### CONTRATAIONES

El Plan de Empleo Comarcal, financiado por el Gobierno Vasco con 63.313€ ha permitido contratar 5 personas: 2 gestores de marketing comercial para el programa Tratu On Bat, un gestor del proyecto Guztion Lasarte-Oria de promoción comercial, un albañil y un pintor.



## ZERBITZU SOZIALAK SERVICIOS SOCIALES



### Atsobakar zahar-etxea Residencia de Atsobakar

#### KUDEAKETA

Zahar-etxea Gipuzkoako Diputazioari eskualdatzea kudeatzen ari gara, haiek izan daitezen udan zerbitzu hori beren kargura lizitaziora aterako dutenak.

#### ZAHAR-ETXEKO ARAUDIA

Oraindik orain onetsi da Araudi, zerbitzuaren funtzionamendua erregelatuko duten arauak ezartzeko helburua duena.

#### GESTIÓN

Estamos gestionando el traspaso de la Residencia a la Diputación de Gipuzkoa con la intención de que en verano sean ellos los que liciten dicho servicio a su cargo.

#### REGLAMENTO RESIDENCIA

Se acaba de aprobar el Reglamento que establece las normas que regularán el funcionamiento de los Servicios.

### Janari-banaketa Reparto de alimentos

7.189 kilo janariren lehen banaketa bat egin dugu, herriko Gurutze Gorriarekin elkarlanean. 234 familia izan ziren onuradunak.

Hemos realizado un primer reparto de 7.189 kilos de alimentos, en colaboración con la Cruz Roja local. 234 familias fueron las beneficiadas.

### Multikulturala

Urrian, Burunzpe guraso-elkartek, Udalarekin elkarlanean, "Multikulturala" antolatu zuen Michelingo frontoian, kulturartekotasuna sustatzeko festa-giroko topaketa gastronomiko bat.

El AMPA "Burunzpe", con la colaboración del Ayuntamiento, organizó "Multikulturala", un encuentro gastronómico-festivo intercultural celebrado en el Frontón de Michelin por 1ª vez.

### Lasarte-Oria, etxegabetzerik gabeko udalerria Lasarte-Oria, municipio libre de desahucios

Udalbatzarrak aho batez deklaratu zuen Lasarte-Oria "etxegabetzerik gabeko udalerrri". Alkatetzak Kaleratzeak Stop elkartearekin egindako zuzemen bati esker, etxegabetze bat geldiarazi ahal izan da.



El Pleno del Ayuntamiento declaró Lasarte-Oria como "Municipio Libre de Desahucios". La gestión conjunta de la Alcaldía con Stop Desahucios ha posibilitado la paralización de un desahucio.

### Emakumeen zentro zibikoa Centro cívico de la mujer


Tasen aldaketak nabarmen gutxitu du zentroan ematen diren ikastaroen kostua. Beste sostengu bat Berdintasunaren Planari.

El cambio de las tasas ha reducido considerablemente el coste de los cursos que se celebran en el centro. Un apoyo más al Plan de Igualdad.

### Generozko bortizkeriaren kontrako nazioarteko eguna Día Internacional contra la violencia de género

Hainbat jardueraren bidez (Beldur Barik bideo-lehiaketa, elkarretaratzak, antzerkia...), izurri horrekin bukatu beharra errebindikatu zen.

Varias actividades (Concurso de Videos Beldur Barik, Concentraciones, Teatro...) reivindicaron la necesidad de acabar con esta lacra.



## FESTAK FESTEJOS

### Karmenetako eta San Inazioetako festak Fiestas del carmen y de San Inazio

Udal honek deszentralizatzearen alde hartutako konpromisoaren barruan, hitzarmen batera iritsi ginen "La Esperanza" auzo-elkartearekin, Karmenetako eta San Inazioetako festa tradizionalak indartzeko. Hala, 3.574 euroko diru-laguntza ez ezik, Udalaren beraren babesa ere izan zuten, bere jarduera propioekin indartu baitzuen programazioa.

Dentro del compromiso de este Ayuntamiento por la descentralización se llegó a un convenio con la Asociación de Vecinos de "La Esperanza" para reforzar la fiestas tradicionales del Carmen y de San Inazio, fiestas que contaron no sólo con el apoyo económico de 3.574€, ya que el propio Ayuntamiento reforzó la programación con actividades propias.

### Kalera fest

Abenduan, eta herriko 50 kolektibo, ostalari eta merkatari baino gehiagoren ekimenez, festa garrantzitsu bat antolatu zen, kalea garrantzizko festa-gune gisa errebendikatzen zue-na, Udalaren sostengua izan zuelarik. Egun eta gau osoan zehar, makina bat jarduera egin ziren herriko hainbat leku eta tabernatan. Sinergia kulturalak sorrarazteko saiakeran, jaialdi hori kultura berri partizipatiboago eta komunitarioago baterako abiapuntua da.

En Diciembre, y a iniciativa de más de 50 colectivos, hosteleros y comerciantes locales, se organizó una importante fiesta que reivindicaba la calle como un importante espacio festivo, contando con el apoyo del Ayuntamiento. A lo largo de todo el día y de la noche se realizaron múltiples actividades en diferentes espacios del pueblo y en bares de la localidad. Un intento de generar sinergias culturales, siendo este festival el punto de partida para una nueva cultura más participativa y comunitaria.

### Inauteriak Carnavales

Aurten "ITSASOA" gaitzat hartuta ospatu dira inauteriak. Konpartsen artean, festen protagonista nagusiak baitira, 12.000 € banatu dira, beren karrozak eta mozorroak diruz laguntzeko. Euskal Inauteriak, Ttakunen eskutik, gure festaren parte bereizezina dira.

Usando como motivo "EL MAR" se han celebrado este año los carnavales. Se han repartido entre las comparsas, grandes protagonistas de las fiestas, 12.000€ en subvenciones para sus carrozas y disfraces. Euskal Inauteriak, de la mano de Ttakun, forma parte indisoluble de nuestra fiesta.



Fotografías: Txema Valtés.





## GAZTERIA JUVENTUD



Fotografías: Txema Vallés.

**2015**

**UZTAILAK 18 JULIO**  
17:30  
ISLA PLAZA - ZUMABURU  
PSICOACUSTIC

**ABUZTUAK 1 AGOSTO**  
17:30  
TXIMISTARRETA PARKEA  
TRANSISTORES 50

**ABUZTUAK 29 AGOSTO**  
17:30  
OKENDO PLAZA  
James room & WEIRD ANTIGUA

**IRAILAK 12 SEPTIEMBRE**  
17:30  
OKENDO PLAZA  
MERY MAY & THE MUPPETS

**KULTUR KALE ZIKLOA**

Jazz Rock blues salsa folk  
EUSKAL MUSIKA SKA COUNTRY  
POP REGGAE FUNKY

**LASARTE-ORIA**

Lasarte-Oria Ikastaroak

### Eguberrietako haur-parkea Parque infantil de Navidad

EHPak, 27.273 euroko kostuarekin, Bitarten jarritako karpa izan zuen berritasun gisa, parkea Oria auzora hurbiltzeko helburuarekin. Horrela, hiru gun ezberrdin izan ziren abenduaren 20tik 31ra funtzionatu zutenak. Langabetuen Asidel elkarteak arduratu zen sarreraz eta tabernaren kudeaketaz.

El PIN, con un coste de 27.273€, contó como novedad con la instalación de una carpa en Bitarte, para acercarlo al barrio de Oria. Tres espacios diferentes que funcionaron del 20 al 31 de Diciembre. La asociación de personas desempleadas Asidel se hizo cargo de la entrada y de la gestión del bar.

### Gazteleku

Gaztelekuak topaleku garrantzitsua izaten jarraitzen du Lasarte-Oriako gazteentzat. Ikastaro mordo bat antolatu dira: Skateen konponketa, Gitarra, Globoflexia, Eskaiolaren Modelaketa, Shuffle Dancea, GPSaren erabilera, Bollywoodeko dantzak, Komikia eta Ilustrazioa, Break Dancea, Dance Halla... Nerabeak biltzeko eta arreta emateko lekua, edo herriko musika-taldeek proba-saioak egitekoa...

El Gazteleku sigue siendo un importante espacio de encuentro para la juventud lasarteoriatarra. Se han organizado múltiples cursos: Arreglo de Skates, Guitarra, Globoflexia, Modelado de Escayola, Shuffle Dance, Manejo del GPS, Bailes de Bollywood, Cómico e Ilustración, Break Dance, Dance Hall... Un espacio para la reunión, la atención a la adolescencia o para el ensayo de grupos musicales locales...

### Kultur kale zikloa

Gazte-musika kalera itzuli zen uda-parte. 3 musika-taldeki girotu zituzten Lasarte-Oriako uda-arratsaldeak, Kultur Kale Zikloari esker. Xpressionen eskutik antolatu zen zikloa, partaide hauekin: Transistores 50 Tximistarreta Parkean, James Room & Weird Antigua eta Mery May & The Puppets Okendo Plazan.

La música joven volvió a la calle por verano. 3 grupos musicales animaron las tardes estivales de Lasarte-Oria gracias al Kultur Kale Zikloa. De la mano de Xpression se organizó el ciclo que contó con Transistores 50 en Tximistarreta Parkea, James Room & Weird Antigua y Mery May & The Puppets en Okendo Plaza.

### KZ GUNE

Gaztelekura tokialdatu da, leku berri eta moderno batera, haren irisgarritasuna bermatzeko.

Trasladado al Gazteleku, una nueva y moderna ubicación para garantizar su accesibilidad.



**LASARTE-ORIA**  
IKASTAROA

**GAZTELEKUKO**  
udazkeneko ikastaroak

- \* SKATEEN KONPONKETA  
URRUGAREN 1778 ARBOZDAREN 1584
- \* GITARRA  
URRUGAREN 1778 ARBOZDAREN 1584
- \* GLOBOFLEXIA  
URRUGAREN 1778 ARBOZDAREN 1584
- \* ESKAIOLAREKIN MODELAKETA  
URRUGAREN 1778 ARBOZDAREN 1584
- \* SHUFFLE DANTZA  
URRUGAREN 1778 ARBOZDAREN 1584
- \* GPS-AREN ERABILERA  
URRUGAREN 1778 ARBOZDAREN 1584
- \* BOLLYWOOD DANTZA  
URRUGAREN 1778 ARBOZDAREN 1584

## KULTURA ETA HEZKUNTZA CULTURA Y EDUCACIÓN



### Haurreskola

Muntazko inbertsio bat egin zen Haurreskola moldatzeko, zoladura aldatuz eta hainbat elementu instalatuz: gortinak eta toldoak, segurtasun-hesiak, aire hotz/beroko gortinak. Guztira 28.834 €.

Se ha realizado una importante inversión para adaptar la Haurreskola, cambiando el pavimento, instalando cortinas y toldos, vallas de seguridad, cortinas de aire frío/caliente. Un total de 28.834€.

### Hippy azoka Feria hippie

Urriari Hippy Azoka egin zen, 70eko eta 80ko hamarkadetan girotua. Azokak artisauro- produktuak saltzeko 34 postu izan zituen, eta adin guztieta-rako jarduerak proposatu zituen, urte haietan oinarrituak.

En octubre se celebró la Feria Hippy, ambientada en los años 70 y 80. La feria contó con 34 puestos de productos artesanales y propuso actividades para todas las edades basadas en esos años.



Foto: Txema Vallés.

### Literatura-lehiaketa Concurso literario

2015eko lehiaketako sarien banaketarekin amaitu ziren haurrentzakoaren 28. edizioa eta helduentzakoaren 29.a. 518 lan aurkeztu ziren haurrentzako 3 kategorietan, 49 helduena... eta 203 mikrokontakizun.

Con la entrega de premios del certamen de 2015 concluyeron las ediciones 28º para el infantil, 29º para el de adultos. 518 trabajos presentados a las 3 categorías infantiles, 49 a la de adultos... y 203 micro-relatos.

### Udaleko eskola-kontseilua Consejo escolar municipal

Eratu da parte hartzeko kontseilu hori, eskola-komunitatea kezkatzen duten gaiak lantzeko helburuarekin.

Ya se ha constituido este consejo participativo para abordar diferentes cuestiones que preocupan a la comunidad escolar.

### Musika-eskola Escuela de música

Musika-Eskolako musika-tresneria zabaltzeko, pandero bat, piano digital bat, bi flauta eta gitarra bat erosi ziren, 3.992 euroan.

El equipamiento musical de la Escuela de Música se amplió con la compra de un pandero, un piano digital, dos flautas y una guitarra por un importe de 3.992 euros.



## EUSKARA EUSKERA



### Baietz gurean!

Programa honek laguntzak eskaintzen dizkiete herriko enpresei beren jarduerak euskaraz egin ditzaten, eta zenbait lan euskaraz egitera konprometitzen direnek diru-laguntza jasotzeko aukera dute. Kasu honetan, Aldaz klinika izan zen programari atxiki zaiona.

Este programa ofrece ayudas a las empresas locales para que realicen sus actividades en euskera. Quienes se comprometen a realizar en euskera una serie de trabajos optan a ayudas económicas. En este caso fue la Clínica Aldaz la que se ha incorporado al programa.

### Euskal jaia

Udalak ekonomikoki eta azpiegiturekin kolaboratu zuen Euskal Jaiaren antolatzaileekin: Ttakun eta Topagunea. Ekitaldiak urrian izan ziren.

El Ayuntamiento colaboró económicamente y con infraestructuras con los organizadores de la Euskal Jaia: Ttakun y Topagunea, actos que se celebraron en octubre.



### Bisita kurdistandik Visita desde el Kurdistan

Kurdistandik, kurduera berreskuratzearen esparruan lan egiten duten talde batek bisitatu gintuen. Euskarak gure udalerrian duen egoerari buruzko informazioa jaso zuten, bai eta haren erabilera hobetzeko udalak gizarteko eragileekin elkarlanean egiten duen lanaren berri ere.

Desde el Kurdistan nos visitó un grupo que trabaja en el ámbito de la recuperación del kurdo. Recibieron información sobre la situación del euskera en nuestro municipio, así como sobre la labor que realiza el ayuntamiento en colaboración con los agentes sociales para mejorar su uso.

# UDALBATZARRAK HARTUTAKO ERABAKIAK

## ACUERDOS PLENARIOS ADOPTADOS

### 2015EKO UZTAILAREN 14AN

- Lasarte-Oriako Udala "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza" partzuergoan integratzea.
- "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza" partzuergoan Udalaren ordezkariak izango direnak izendatzea.

### 2015EKO IRAILAREN 8AN

- Udaleko ondasun eta eskubideen 2014ko inbentario orokorrean egindako aldakuntzak onestea.
- 2014. urteko ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorraren espedientea onestea.
- "PAH-Kaleratzeak STOP Desahucios" elkartearen mozioa, "Etxegabetzeekin amaitzeko eskaerari eta Udalak etxebizitzatik kaleratzeak eta irtenarazteak geldiarazten kolaboratzeari" buruz
- PSE-EE-PSOEK, EH Bilduk eta ADLOPk aurkeztutako emendakin transakzionala, "Lasarte-Oriako udalerrria Siriako gerrako eta gatazkan diren beste herrialde batzuetako errefuxiatuen aterpetzaile deklaratzeari" buruzkoa.

### 2015EKO URRIAREN 13AN

- Atsobakar Zahar-etxeko Araudi Orokorrari hasierako onespina ematea.
- Taxiaren 2016. urteko ekitaldirako tarifa urbanoak onestea.
- Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko espedientea (2/2015 zenbakiarekin identifikatua) onestea.
- PSE-EE-PSOEK eta ADLOPk elkarrekin aurkeztutako mozioa, gai honi buruz: "Gipuzkoako Foru Aldundiak Atsobakar zahar-etxea beretzea".
- PPK aurkeztutako mozioei PSE-EE-PSOEK aurkeztutako mozio alternatiboa, udal

gardenago baterako ekin-tzak proposatuz.

- EH Bilduk aurkeztutako mozioa, "Pello Gibelalde ADEGIko presidentek Gipuzkoako gazteei egindako deklarazioei buruz"
- EH Bilduk gai honi buruz aurkeztutako mozioa: "Jesús Zaballos FEMPEko gobernu-batzarreko kide izendatzea".

### 2015EKO AZAROAREN 9AN

- 2016. urterako ordenantza fiskalak onestea.

### 2015EKO AZAROAREN 10EAN

- Alkatetzaren proposamena: Azaroaren 25erako mozioa, "Emakumeenganako bortizkeriaren kontrako Nazioarteko Egunari" buruzkoa.
- Udaleko EAJ-PNV eta PP taldeek elkarrekin aurkeztutako mozioa, "Gipuzkoan sortutako hondakinen kudeaketa integralari" buruz.
- Aire Garbia plataformak aurkeztutako mozioari udaleko PSE-EE-PSOE taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa, "Zubietako erraustegiari" buruz.
- Udaleko ADLOP taldeak aurkeztutako mozioa, errefuxiatu saharaiuen kanpamentuetako uholdeengatik larrialdiko laguntza emateari buruz.

### 2015EKO AZAROAREN 27AN

- Kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko espedientea (3/2015 zenbakiarekin identifikatua) onesteko proposamena.

### 2016KO URTARRILAREN 12AN

- "Enplegu Lokaleko Mahaia Arautzeko Erregelamenduari" hasierako onespina ematea.
- Lasarte-Oriako Udalaren Araudi Organikoari" hasierako onespina ematea.

### 14 DE JULIO DE 2015

- Integración del Ayuntamiento de Lasarte-Oria en el Consorcio "Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa".
- Nombramiento representantes del Ayuntamiento en el Consorcio "Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa".

### 8 DE SEPTIEMBRE DE 2015

- Aprobación variaciones inventario general de bienes y derechos 2014.
- Aprobación del expediente de la cuenta general del presupuesto ejercicio 2014.
- Moción de "PAH-Kaleratzeak STOP Desahucios" sobre "La exigencia del fin de los desahucios y la colaboración del Ayuntamiento en la paralización de desahucios y desalojos"
- Enmienda transaccional presentada por PSE-EE-PSOE, EH BILDU y ADLOP relativa a "La declaración de Lasarte-Oria como municipio acogedor de refugiados de la guerra de Siria y otros países en conflicto."

### 13 DE OCTUBRE DE 2015

- Aprobación inicial del Reglamento General Residencia Atsobakar.
- Aprobación de las tarifas urbanas del taxi para el ejercicio 2016.
- Aprobación del expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales, identificado con el nº 2/2015.
- Moción conjunta presentada por PSE-EE-PSOE y ADLOP relativa a: "La absorción por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa de la residencia de ancianos Atsobakar".
- Moción alternativa presentada por el PSE-EE-PSOE a las presentadas por el PP, proponiendo acciones para un Ayuntamiento más transparente.

- Moción presentada por EH BILDU en relación a "Las declaraciones efectuadas por el presidente de "Adegi", Pello Gibelalde, a l@s jóvenes de Gipuzkoa".
- Moción presentada por EH BILDU en relación al: "Nombramiento de Jesús Zaballos como miembro de la Junta de Gobierno de la FEMP".

### 9 DE NOVIEMBRE DE 2015

- Aprobación de las Ordenanzas Fiscales para el 2016.

### 10 DE NOVIEMBRE DE 2015

- Propuesta de Alcaldía: Moción para el día 25 de noviembre relativa a "Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres".
- Moción conjunta presentada por los grupos municipales EAJ-PNV y PP, en relación a "La gestión integral de los residuos generados en Gipuzkoa".
- Moción alternativa presentada por el grupo municipal PSE-EE-PSOE a la presentada por la plataforma "Aire Garbia" en relación a "La planta incineradora en Zubieta".
- Moción presentada por el grupo municipal ADLOP relativa a la ayuda de emergencia por las inundaciones en los campamentos de refugiados saharauis.

### 27 DE NOVIEMBRE DE 2015

- Propuesta de aprobación del expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales, identificado con el nº 3/2015.

### 12 DE ENERO DE 2016

- Aprobación inicial del "Reglamento regulador de la Mesa de Empleo Local".
- Aprobación inicial del "Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Lasarte-Oria".

